



## **A m o r o t o k o U d a l a**

Elxalde Auzoa, 1  
48289 Amoroto (Bizkaia)  
Tel: 946842549 - Fax: 946243704  
E-mail: mblaka.amoroto@bizkaia.org  
Web: www.amoroto.net

**Akta: 07/04**

### **2004KO UZTAILAREN 14AN EGINDAKO BATZARRA**

Amoroton, udaletxeko batzar aretoan, bi mila eta lauko uztailaren hamalauan, gaueko zortzietan, behean aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira, Maribi Ugarteburu Markuerkiaga alkate andrea buru dela.

***Bertaratuak:***

*Zinegotziak:* Ramon Abaroa Iturran  
Bitor Mari Gabiola Leniz  
Sorkunde Gabiola Zabala  
Igor Gabiola Antxustegi  
*Idazkaria:* César Gandarias Badiola

***Bertaratu ez direnak:***

Ainara Ikaran Zugazaga  
Pedro Mari Arriaga Meabebasterretxea

Alkate-udalburu andreak batzarrari hasiera eman ondoren, aurreko batzarreko akta irakurri eta aho batez onetsi da.

Jarraian, ondorengo erabakiak hartu dira:

### **1.- 2003KO UDAL AURREKONTUAREN KONTU OROKORRAREN ONARPENA.-**

Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko apirilaren 20ko 500/1990 Erret Dekretuaren arabera, eta Osoko Bilkurak bere onarpena eman diezaion Idazkariak 2.003ko Kontu Orokorra aurkeztu du, beronen osagaiak honako hauek direlarik:

- a- Ekitaldiaren itxierako egoeraren balantzea.
- b- Ekitaldiko emaitzen kontua.
- c- Ibilgetuaren zehaztasunak.
- d- Ekitaldiko memoria.
- f- Aurrekontuaren likidazioa.
- g- Aurrekontuaren likidazioa eta Kontabilitate kontuen arteko kontziliazioa.

Guztiz komentatu ondoren, kontutan izanik Aurrekontuaren likidazioa 2004ko martxoaren 24ko osoko bilkuran onarturik dagoela eta kontabilitate kontuen zehaztasunak azpimarratuz, Udal Osoko Bilkurak aho batez erabaki du:

Aurkezturiko 2.003ko Udal Aurrekontuaren Kontu Orokorra onartzea eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragartzea, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko. Jendaurreko epean erreklamaziorik ez balego, Kontu Orokorra behin-betiko onartutzat joko da.

## **2.- PETER NICHOLSON SOLANO JAUNARI OBRETARAKO LIZENTZIA EMATEA, EGOKI BADA.-**

Peter Nicholson Solano jaunak Elexalde auzoko Elorraran baserrian erreteila egiteko aurkeztu duen udal lizentzi eskaeraren berri eman da, obra honen aurrekontua 30.535,61 eurotako izanik. Ondoren, Udalbatzak aho batez erabaki du:

- 1.- Eskatutako obretarako lizentzia ematea, ondorengo baldintzei loturik:
  - 1) Udaletxean aurkeztutako agiriei loturik burutu beharko dira obrak. Ezin izango da baserriaren estruktura ikutzen duten lanik gauzatu.
  - 2) Obrak bukatzeko epea urte betekoa izango da, erabaki hau jakinarazten denetik zenbatuta. Epea hau igarotzen denetik lizentziaren balio eta ondorioak galduko dira. Aipatutako lizentzi epea luzatu ahal izango da, urte bete horren barruan interesatuak arrazoi justifikagarririk azaltzen badu.
  - 3) Obrak hasi aurretik Udal Idazkaritzan 928,57 € ordaindu beharko ditu, espedientean agertzen denaren arabera.
  - 4) Obra egiterakoan, osasun eta segurtasun neurriak zaindu beharko dira.
  - 5) Obretarako lizentzi hau jabetzaren eskubideak salbu eta hirugarren baten kalterik gabe emanda ulertuko da.

2.- Osoko Bilkurako 1990eko abenduaren 26an eta 2000ko urriaren 3an hartutako akordioaren arabera, obra hauek egiteko, Udalak 928,57 eurotako subentzia ematen du, baserria konpontzeko eta hobetzeko obrak direlako.

## **3.- OBRETARAKO LIZENTZIA EMAN, EGOKI BADA, FRANCISCO DE LA TORRE ETA AITZIBER AMUTXASTEGUI JAUN ANDREEI.-**

Nuria Arrizabalaga arkitektoak idatzitako proiektuaren arabera egiteko eta 155.806,45 eurotako aurrekontuarekin, Amorotoko Elexalde auzo ondoan dagoen gunen urbanizazinean etxebizitza bakar bat eraikitzeko Francisco de la Torre eta Aitziber Amutxastegui jaun andreek eskatu duten obretarako lizentzia emateko espedientea ikusirik.

Ikusirik Jesus Angel Landia Uribe udal arkitekto aholkulari jaunak idatzitako txostena.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak aho batez erabaki du:

Francisco de la Torre eta Aitziber Amutxastegui jaun andreei eskatutako lizentzia ematea, ondoren adierazten diren baldintzak betez:

- 1) Obrak Udal honetan aurkeztutako eta espedientean agertzen den proiektuari guztiz egokitu beharko dira. Lizentziaren kanpo gelditzen den edozein aldaketa uratse zigorgarria izango da eta dagokion legeztatze espedientea eskatu ahal izango zaio. Lizentzia honetako edozein baldintza ez betetzea zigortua izan daiteke, bai isun bat jarriz bai obrak geldituz, Udalbatzak erabakitzen duenaren arabera.
- 2) Amorotoko Ordezko arauetan etxebizitza eraikiko den gunea urbanizazina moduan sailkatuta dago. Toki hauetan eraikuntzak baserri lanari lotuta egon behar dute. 10.000 m<sup>2</sup>ko partzelarekin posible izango litzateke etxea egitea. Bisatutako proiektuan 3.690 m<sup>2</sup> lurzatian dator kokatuta etxea eta falta diren metroak ez datozte marraturik. Arazo hau konpondu beharko da. Bestaldetik, terrenoak %14ko aldatza dauka eta erreilenoa egin behar da, hau dela eta, ezin izango da aldameneko lurretatik 5 metro barruan inolako eskoilerarik egin erreilenoa mantentzeko.
- 3) Obren exekuziorako Goi mailako Arkitekto eta Aparejadore edo Arkitekto Teknikoaren zerbitzuen kontratazioa exijitzen da. Udal Idazkaritzan dagozkien zerbitzu profesionalen errentamendu kontratuen fotokopiak aurkeztu beharko dira. Baita ere beharrezkoa den segurtasun koordinatzailearena.
- 4) Obrak hasi aurretik, tokiaren egiaztapen agiria (replanteoko akta) egingo da, jabetzak idatziz eskatuko duelarik. Era berean, obrak hasi aurretik

- Udal Idazkaritzan 4.713,64 € ordaindu beharko ditu, espedientean agertzen denaren arabera.
- 5) Ukitzen dion indarreango legeria guztia bete beharko da, bereziki laneko osasun eta segurtasunari buruzkoa.
  - 6) Halaber, ugazaben kargu izango dira urbanizazio kostuak eta beharrezko izan daitezkeen bide, ur, argi eta zerbitzu guztien ezarpena.
  - 7) Obrak burutzeko epea urte betekoa izango da, baimen hau jakinerazten denetik zenbatua. Epe hau igarotzen denetik lizentziaren balio eta ondorioak galduko dira. Aipatutako lizentzi epea luzatu ahal izango da, urte bete horren barruan interesatuak arrazoi justifikagarririk azaltzen badu.
  - 8) Obrak bukatu eta gero, Udaletxean berri eman beharko dute, Udaleko zerbitzu teknikoek inspekzioa egin dezaten; obretarako lizentzia emategatiko tasa eta eraikuntz, instalazio eta obren ziozko zergaren behin betiko likidazioa egingo delarik. Eskaerarekin batera obren amaierako ziurtagiria eta obren likidazioaren laburpena aurkeztu beharko dira, obren zuzendaritzako teknikoei dagokien Elkargo Profesionalek bisaturik.
  - 9) Lizentzia hau beste Administrazio edo Erakundeen eskuduntzen kalterik gabe, jabekuntza eskubideak salbu eta hirugarren baten kalterik gabe emanda ulertuko da.

#### **4.- UDAL SARETIK UREN TOMA BAT EGITEKO FRANCISCO DE LA TORRE ETA AITZIBER AMUTXASTEGUI JAUN ANDREEK AURKEZTUTAKO ESKAERA.-**

Elexalde auzo ondoan dagoen gunen urbanizazinean eraikitzeko den etxebizitza bakarraren erabilerarako, udal saretik uren toma bat egiteko udal baimena eskatuz, Francisco de la Torre eta Aitziber Amutxastegui jaun andreek aurkeztutako eskaeraren berri eman ondoren, Udalbatzak aho batez erabaki du:

Udal ur saretik toma bat egiteko udal baimena ematea, aurretiaz toma eskubidegaitik 90,15 euro ordaindu beharko dituelarik. Uren toma udal zerbitzu teknikoak esaten duen tokian egin beharko da; eta udaletik azaldutako espezifikazio teknikoekin (materialak,...).

#### **5.- 2005 URTEKO LAN EGUTEGIRAKO HERRIKO JAI-EGUNA ONARTZEA.-**

2005 urteko lan egutegia dela eta, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailburuaren ekainaren 21eko 125/2004 Dekretua onartu da. Udal honek proposatu behar du herriko jai-eguna, Langileen Estatutuko 37.2 artikulua arauera, Eusko Jaurlaritzak Autonomi Elkartearentzat 2005 urterako dekretatu dituen lan-egun jaiez gainera.

Udalbatzak aho batez erabaki du:

Uztailaren 5a, San Martin jaiari dagokion atsedena, proposatzea herriko jai-egun bezala 2005 urterako.

#### **6.- UDAL-ETXEBI ZITZAREN ERRENTAMENDUA BERTAN BEHERA UZTEA.-**

Elizalde auzoko Elimendi etxeke 2. pisuko eskumako etxebizitzaren errentaria den Milagros Kortabitarte Laka andreak idatzia aurkeztu du Udaletxean. Idatzi horretan azaltzen duenez, aipatutako etxebizitza uztailaren 31an utziko du eta beraz, kontratuaren hausketan eskatzen du.

Hori dela eta, Udalbatza Osoak aho batez erabaki du:

Udala eta Milagros Kortabitarte Laka andrearen artean zegoen Elizalde auzoko Elimendi etxeke 2. pisuko eskumako etxebizitzaren errentamendua amaitutzat ematea uztailaren 31etik aurrera.

## **7.- GASTUAK.-**

Ondorengo gastu eta fakturak aurkeztu dira, behar bada onartzeko:

- Canonen faktura, 29,35 euro.
- Iragarri, S.L.ren faktura, 122,96 euro.
- Maderas Zubieta, S.L.ren faktura, 183,22 euro.
- Cetolar, S.A.ren faktura, 198,36 euro.
- Auto-Reparaciones Zaldibiaren faktura, 183,83 euro.
- Aguas del Norteren faktura, 22,29 euro.
- Norte Industrial, S.A.ren faktura, 59,16 euro.

Udalbatzak aurkeztutako gastuak onartzea eta ordaintzea erabaki du.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburu andreak bilera amaitutzat eman du gaueko hamarrak laurden gutxiago direnean eta nik, Idazkariak, erabakitakoak jasotzeko akta hau egin dut.